

noaua



HURBILAGOK 100 EUROKO 5 BONUZOKATUKO DITU BERE BEZEROEN ARTEAN

10.000 bonboi banatuko dituzte. Urre kolorekoa tokatzen bazaizu, 100 euroko bonua eskuratuko duzu / 09

ARGAZKIA: NOAUA



UDALA

'Emakumeon Topaketa' urriaren 5ean ospatuko da / 05



NOAUA

Eneko Eizagirre: "Suizidioen inguruan hezten segi behar dugu" / 14



NOAUA

Kulturguneak ere gogotsu ekin dio ikasturte berriari / 18

Aginagako jaiak urriaren 4an hasi eta 12ra arte luzatuko dira / 12



Santueneko jaiak, iruditan



IRTEERA 2025eko martxoan

Noaqa gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaqa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



*Irekiera
berria!*

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

Ostegunetan

Pintxo pote!

8:00-20:30 Asteleheneretik - Asteazkenera **BAZKARIAK**
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera **BAZKARI eta AFARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

Usurbilgo Sagardo Kultura

Izen-ematea (doan)
650usurbilbizi.eus

Usurbilgo sagardoaren kultura ezagutzeko bisita
gidatua herriko sagastietan barrena.*

Egiluze baserrian zuzeneko sagar jotzea ikusiko da.



Irailak 28 - 10:00etan

Irteera: Sagardoaren eskultura (Noaqa-ren alboan)

*5 kilometroko ibilbidea da, eta ez da irisgarria

'Musu Truk' erakusketa Sutegin ikusgai

Pilar Herrero Sokobeheren margolanak urriaren 6ra arte ikusi ahal izango dituzue.

Sortzez Donostikoa den artista Zarautzen bizi da gaur egun, eta bertan, "Artezalek-en Usurbilgo Jasone Irigoyen du irakasle".

Batzuetan, interneten ikusitako argazkiak ditu inspirazio iturri. Beste batzuetan, bidaietan egiten dituen argazkiak, hala nola Vietnam, Kanboia, Norvegia, baina baita Zarautz, Elgoibar, Ge-

tarian eta beste Euskal Herriko toki batzuetan egini-koak. Paisaiak, abstraktuak eta bestelakoak margotzen dituen arren, erretratuak dira bere gustukoena.

Pilar Herrero Sokobeheren "Musu Truk" erakusketa

- Irailaren 20tik urriaren 6ra arte Sutegin.
- Irekiera egunak: ostiraletan (18:00-20:00), larunbatetan (11:00-14:00 / 17:00-20:00) eta igandetan (11:00-14:00).



Pilar Herrero Sokobeheren margolanak Sutegiko erakusketa aretoan egongo dira ikusgai, urriaren 6ra bitarte.

Garbigune mugikorra, Txokoalden

Irailaren 26tik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxe-ko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urriaren 3an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera eramango dute.

1969ko kinto bazkaria, urriaren 26an Patrin

Urriaren 19a baino lehen eman behar da izena, 50 euroko ordainketa eginez: ES32 3008 0259 154771916121 (Rural Kutxa). Ordainketa egiterakoan izen-abizenak zehaztea eskatu dute. Bazkari egunean 12:30ean finkatu dute biltzeko hitzordua Atxegaldeko Mahaspildegi elkartearen.

1960an jaiotakoen topaketa

Talde bat sortu dute, hurrengo urtean beteko dituzten 65 urteen harira topaketa bat antolatzeko.

Talde horretan parte hartu nahi duenak deitu dezala 655 720 666 telefono zenbakira edo whatsapp mezua bidali dezala telefono zenbaki horretara.

"Goazen kalera" ibilaldi osasuntsua, Usurbilgo kaxkoan

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Amaieran, Lanbide Heziketako ikasleek eginiko hamaiketako banatzen dute parte hartzaileen artean. Urriaren 1ekoa Usurbilgo kaxkoan egingo da. 10:30ean batuko dira, frontoian.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatoratzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI BENGOTXEA

Sendabelar baratzea

Irailean sartu orduko, agurtzen ari natzaionaren sentsazioa dut. Aurtengoan, uda igaro dela ziurtatzeko oroimenari lana eman eta bisitatuko parajeak, irentsitako oturuntzak eta argazkietan a t z e m a n d a k o u n e gogoangarrietara jo beharra dut. Agian, hondartza kasik zapaldu ez dudalako izango da, edo tomateak inoiz baino beranduago datozelako baratzean.

Irailari maiz, hasiera zaporea erantsi ohi diogu. Errutina berriak eraiki ohi dira garaiotan, batzuk lana zein puntutan eten genuen asmatunahian gabiltzan artean. Nire kasuan, proposamen berriren bati baiezkoa eman diot ikasturte berrirako, lagunartean kirol berri bati ekiteko erabakia hartu dut eta aspaldian izen-eman nahi nuen ikastaro batean parte-hartzeko aukera izan dut hiru aste eskasotan.

Horietatik, aitortu beharra dut batez ere azkenak piztu didala zirrara gehien. Izan ere, irailaren 14an Azpeitiko Kimu Bat espazioan, Garbiñe Larraeren esku zabaltasunaz, Sendabelar Baratzeaz ikasten arituginen grinatsu. Eta orain, atetik sartu aurretik baino ilusio gehiagorekin jarraitzen dut lehen urratsak ematen.

Etxean, sendabelarren inguruan erreferentzia apur batzuk jaso izan ditut. Baina gai askorekin gertatu ohi den bezalaxe, nahi baino gutxiago izan dira.



"Etxean, sendabelarren inguruan erreferentzia apur batzuk jaso izan ditut".

Oroitzen dut adibidez, amonak eta amak nola kontatzen zidaten, lanean izandako istripu baten harira infekzio itsusi bat izan zuela aitona zenak. Ospitalean ingresatuta, medikuek hanka ebakitzeko asmoa adierazi zieten, beste aukerarik ikusten ez zutelakoan.

Amonak berak, ezkutuan eraman omen zion pasmo-belarrez egindako infusioa. Ezkutuan egin zuela azpimarratzen zuen, garai hartan, mediku batzuek ez baitzuten begi onez ikusten sendabelarren kontsumoa. Baina zorionez, aspaldidanik ezagutzen zuten erremedioak hurrengo egune-

rako bere lanak egin zituen, aitona etxera osorik itzultzearaino. Esango nuke, horrexegatik diogula landare honi halakoa estimua.

Berbena belarra ere, ezagutu izan dut eta haren enplastoa, behin erabili izanaren akordua dut, izter aldean gaiztotutako ile batek inflamazio bat eragin zidanean. Gainerakoan, etxe inguruan jasotako kamamila lehorraren usaina ere ohikoa izan da sukaldean.

Maiz, ardura eta tristuraren arteko zerbait sumatu izan dut, garai batean ikasi eta proban jarri zutena, gugana heldu ez eta galdu egingo dela jabetzean. Baina aizue, etxetik ez bada ere, kanpoan jaso nahi dugun jakintza eskuratzeko aukera izatea, ez da makala, ezta? Eskerrak inguruan lan izugarria egiten ari diren dibulgatzaile bikainak ditugun. Eta zuek, zeri heldu nahi diozue ikasturte honetan?

**"ESKERRAK
INGURUAN
DIBULGATZAILE
BIKAINAK
DITUGUN"**

Igande honetan amaituko da katekesian izena emateko epea

Katekesian izen-ematea modu telematikoan egingo da aurreten. "2. mailatik aurrerako umeak dituzten familiek korreo elektronikoz jasoko dute izen-emate orria eta informazio guztia", Usurbilgo Salbatore parrokiako katekesi taldeak aditzera eman duenez.

1. mailan apuntatu nahi dituzten familiek aldiz, "Parrokiaren korreo elektronikoaren bidez (salbatoreparrokia@gmail.com) edo telefonoz (943 361 239) utzi dezakete katekesian izena eman nahi duenaren izena eta telefono zenbakia. Gu jarriko gara harremanetan haiekin".

Urriaren 11n hasiko dira katesaioak

Izena emateko epea irailaren 29an amaituko da. Katekesi saioak aldiz, urriaren 11n abiatuko dira.

II. Joan Mari Torrealdaik beka deialdia

"Euskal kultura azterketa gaur", hortxe kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzea xede duen Jakin Fundazioaren eta Usurbilgo Udalaren beka deialdiaren bigarren edizioa da.

Epea: urriak 21

Interesdunek urriaren 21era arteko epea dute proiektuok aurkezteko. Informazio gehiago jakin.eus atarian.

Otar-Goxo
Elizkargariak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL



Udal-gobernuak, Emakumeon Etxeko talde sustatzailleak eta Kafe Tertuliak sustatu dute urriaren 5eko topaketa.

Emakumeon Topaketa astebete barru ospatuko da

Izatez maiatzean egitekoa zen topaketa aurrerago antolatzekotan geratu ziren. Eguna finkatu dute jada; urriaren 5ean egingo dute Emakumeon Etxean, Kalezarren.

Herriko emakumeek "elkar ezagutu eta sareak jostea" dute helburu". Lehenbizi, Elhuyarrek bideraturiko talde dinamika bat egingo dute eta horren baitan Emakumeon Etxeko webgunea aurkeztuko dute. Dagoeneko, egunotan jarri dituzte sare sozialak martxan. Umorez eta jan-edanarekin borobilduko dute goiza.

Eskaintza zabala

Ez da izango asteotan Emakumeon Etxean bideratuko

duten dinamika bakarra. Ur-tarrilera bitarteko eskaintzaren berri emango dute etxer etxer egunotan. "Ikastaroak ez ezik, zerbitzuak eta kultur ekitaldiak izango dira, ohi bezala", aurreratu dute.

"ELHUYARREK GIDATUKO DU GOIZ PARTEKO TALDE DINAMIKA"

Emakumeon Topaketa

- Urriak 5, larunbata.
- 11:00-13:00 Talde dinamika, Elhuyarrek gidatuta.
- 13:00 Bea Egizabal umore-gilea.
- 14:00 Luntxa.
- Tokia: Emakumeon Etxea.
- Izen-ematea: 943 377 112 / emakumeonetxea@usurbil.eus

Informazio gehiago:

- Facebook: Usurbilgo Emakumeon Etxea
- Twitter: @UsurbilEmakumea
- Instagram: @usurbilgoemakumeonetxea
- E-posta: emakumeonetxea@usurbil.eus
- Telefono zenbakia: 943 371 112.
- Orduetgia:
 - Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 10:00-13:00.
 - Astearte eta ostegunetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Helbidea: Belmonte kalea, 8 (Pelaioenea).

'Arnasetik', gazteei zuzendutako bideosormen lehiaketa

Arnasa Gara ekimenak III. Arnasetik bideosormen lehiaketa antolatu du "euskararen arnaguneetako 10 eta 16 urte bitarteko gazteen sormena eta euren hizkuntza ohituren eta herrien inguruan gogoeta pizteko".

UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin sustatutako egitas-moa da.

Hiru kategorია

Kategoria bakoitzean erronka ezberdinei erantzuna emateko bideoak aurkeztu beharko dituzte. LH 5. eta 6. mailako ikasleek bere herriko txoko maite baterako bidea erakutsi beharko dute.

DBH 1. eta 2. mailako ikasleek bere herrietako urteko egunik berezienerako nola prestatzen diren erakutsi beharko dute, jaia nola sortu zen, zergatik eta festa egun horretan zer sentitzen duten azaltzen duten bitartean.

Azkenik, DBH 3. eta 4. mailako ikasleek kazetari pape- ra hartuko dute.

Kategoria bakoitzak 500 euroko sari baliokide bat izango du bai eta publikoaren sariak ere.

Argibide gehiago, arnasagara@gmail.com posta helbidean.

Booktegi festa hirugarrenez ospatuko da Usurbilen

Euskarazko literatura guztion esku sarean jartzen diharduen Booktegi egitasmoak bere urteroko jaialdia antolatuko du hirugarren urtez Usurbilen. Urriaren 26rako iragarri dute.

Iazko edizioaren ildotik, solasaldi, errezitaldi, musika eta antzezpena tartekatuko dituzte egunean zehar, goiz partean Zumarte Musika Eskolan eta

arratsalde partean, Sutegin antolatu dituzten ekitaldiekin.

Anfitrioia, Itxaro Borda

"Poesia edukiko dugu aipagai, nobela edota antzerkia", anfitrioia lanak egingo dituen Itxaro Bordaren esanetan. Gai beraren inguruan ipuin bana idatzi duten hiruna idazle solasean jarriko ditu jaialdiak

"elkarri irakurriz" saioetan. Tartetxo bat egingo dio, gainera, euskarazko sorkuntza sustatzen duen Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoari ere. Kontzertu eta antzezlan batez gozatzeko ere parada izango da. Batetik, Mikel Martinezen "Hamalau" izeneko bakarrizketa saioa programatu dute, bestetik, Habiak taldearen emanaldia.

Esther Sound Sister DJ.-ren giroturiko dantzaldiak boro-bilduko du jaialdia frontoian.

Herritarren parte hartzea

Iaz bezala, jaialdi honen parte izango dira ikus-entzuleak ere. Programaturiko ekitaldietan egoteaz gain, hitza hartzeko aukera izango dute. Goiz partean, gustuko poema bat hautatu eta beste batek hautatu duena irakurtzeko aukera izango da "poesia itzulera" saioan. Olerki errezitaldia eskainiko dute, bestalde, Udarrégi ikastolako LH 5. mailako ikasleek arratsalde partean Sutegin.



Maila guztietako ikastaroak eskainiko dituzte Etumeta AEK euskaltegian. Argazkia, artxibokoa.

Euskaltegiko ikasturtea urriaren 1ean abiatuko da

Etumeta AEK Euskaltegiko klaseak datorren astean hasiko dira baina oraindik bada izena emateko aukera. Ikasturtea 2025eko ekainaren 19ra arte luzatuko da.

Maila guztietako ikastaroak eskainiko dituzte, eskaeraren arabera, taldeak goizetik iluntzera osatzeko aukera. Asteazken orduko mintza taldeak ere abiarazteko asmotan dira.

Gogoan izan, euskara doan ikasi daitekeela Usurbilen. Izan ere %80ko parte hartzea egiaztatuz gero, Udalak matrikulazioaren %100a ordaintzeko laguntza eskaintzen du, gehienez 600 eurora arteko mugaren baitan. Horrez gain, ordea, HABEk ere dirulaguntza lerro berezi bat eskainiko du C1 edo B2 mailako ikastaroak egiten ari diren 16-18 urte arteko gazteentzat. Laguntza horrekin matrikula 66 eurotan bideratu ahalko dute. Laguntza lerro berri bat ere iragarri du HABEK, A0 edo A1 mailako ikastaroak egingo dituztenentzat. Hauen kasuan, astero 10 orduko ikastarorako 198 euro ordaindu beharko dituzte, 162

euro astero 8 orduko ikastaroen kasuan. A1 mailako ikastaroa gaituz gero, HABEK %100eko matrikula gastua itzuliko diete. Ikasturte amaieran egin beharko dira laguntza hauen eskaerak; udal dirulaguntzarenak ekainean, uda partean edota udazkenean HABEri lotutako laguntzenak.

Bi ikastaro, Udalarekin lankidetzan:

Etorri berrientzako ikastaroa
Doako hastapen ikastaroa.

%80KO PARTE HARTZEA EGIAZTATUZ GERO, DOAN ATERAKO ZAIZU"

Astearteetan, 18:15-19:45 artean Potxoenean.
Izen-ematea euskara@usurbil.eus atarian edo 943 371 999 telefono zenbakian.

Jubilatuentzako ikastaroa

Doako oinarrizko ikastaroa. Ostegunetan, 18:15-19:45 artean Artzabalen.
Izen ematea 10:00-12:00 artean Artzabalen edo 943 371 999 telefono zenbakian.

Gainerako ikastaroak

Gainerako ikastaroetarako izen-ematea osatzeko eta argibide gehiagorako:

- Helbidea: Kale Nagusia, 43 (asteleheneretik ostegunera 11:00-13:00 / 17:30-20:00. Ostiraletan, 11:00-13:00).
- 607 609 379
- usurbil@aeek.eus
- aeek.eus
- blogak.eus/etumeta-euskaltegia-aeek

Bertso eskola Udarregin

LH5, LH6, eta DBHko ikasleei zuzendua, astelehenero batuko dira Udarregi eraikinean, eguerdiko 13:30etik 14:30era. Iaz bezala, Lierni Rekondo izango da bertso-irakaslea.
Izen-ematea, telefono bidez: 608 768 539 (Josu).

Oinarrizko Lehen Sorospen ikastaroa DYAreko egoitzan

Irailaren 28an hasiko da, euskaraz eskainiko dute eta edonork eman dezake izena. DYA Gipuzkoak aditzera eman duenez, 10 orduko iraupena izango du eta bi egunetan luzatuko da. Goizez batuko dira, 09:00etatik 14:00etara, Usurbilgo DYAk Muna-Lurra, 26 helbidean duen egoitzan.

Ikastaro honetan, eguneroan topa genitzakeen arrisurik nagusienak landuko dira, eta hauei aurre egiteko teknikak erakutsiko dituzte: bihotz birika susperketa, zauriak, haustura, erredurak...

Plaza kopurua, mugatua

Matrikularen kostua 60 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroren kalitatea bermatzearren.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira. DYAreko web orrian ere eskura daiteke ikastarolari buruzko informazioa:

DYAgipuzkoa.com.

Zinemaldian saritutako filmak Urbilen ikusgai

Irailaren 28ra bitarte, Urbilgo zinema aretoek Euskal Zinema ziklo bat eskainiko dute. Zinemaldiaren aurreko edizioetan 'Zinemira' sailean saritutako filmak ikus ahal izango dira.

Hauek dira Zinemaldiko azken asteburuan eskainiko diren pelikulak:

- Irailak 25, 26: Ane.
- Irailak 27, 28: Sultanaren ametsa (*El Sueño de la Sultana*).

Film guztiak 19:30ean hasiko dira.



Astelehenean, jaien biharamunean, udal brigadako langileak izan ziren zarata egiten aritu zirenak.

Egunotan Santueneko aparkalekuak asfaltatuko dira

Udalak asfaltatze-kanpaina bati ekin dio. Santuenean hasiko dira eta ondoren beste auzoetara joko dute.

Asfaltatze-lanez gain, "izaera desberdineko hainbat lan egingo dira, herriko hainbat lekutan", Udalak jakinarazi duenez. "Oraingoz, Santuenean egingo diren lanek dute

hasiera egun zehatza: asteazkena, irailaren 25a". Horren aurretik, prestaketa-lanak egiten aritu dira udal-brigadako langileak. Jaien biharamunean hasi ziren beharrean.

Atarien arteko aparkaleku guztiak asfaltatuko dira

Atarien arteko eremuak hartintzarrezkoak dira. 15 dira guztira eta horiek asfaltatuko dira egunotan. "Lauzpabost eguneko lana izango da, betiere, eguraldiaren arabera".

Eskubaloi zelaia, behin behineko aparkalekua

Lanak egin bitartean ezingo da leku horietan aparkatu egunean zehar; gauez, bai. "Horrez gain, eskubaloi pistan ere ate bat zabalduko dute, behin-behinean aparkaleku gisa erabili ahal iza-

teko", udalak aditzera eman duenez.

Zebra bideak

Bestelako lanak ere egingo ditu udal-brigadak egunotan. Hiru zebra bide altxatuko dira: Zumartegi industrialdearen sarreran, Errekatziki kalean eta Pikaolan. Lehenengo biak Arburu-Tellendegi herri bidea bukatu ondoren egingo dituzte. Pikaolakoa, berriz, Iartzako eta Usaskuko petatxu lanekin batera egingo da.

Petatxuak

"Iartzan, Usaskun, Kale Nagusian eta Mercadona supermerkatuaren atzeko bidean petatxuak jarriko dira", eta udaletxean, "Irutasun kalean aparkalekuetako zuloak konpontzeaz gain, udaletxeko sarbidearen irisgarritasun baldintzak hobetuko dira".

LANAK IRAUN BITARTEAN, ESKUBALOI PISTAN APARKATU AHAL IZANGO DA

Datozen asteetan zuhaitzak moztu eta aterako dituzte Andatzatik

Astelehenean hasi ziren lanean eta bolada batean kamioien joan-etorriak ugariak izango direla aurreikusi daiteke. Ustiatketa egingo den lursailak 18 hektarea inguru ditu, eta 4.047 m³ egur ustiatuko dira. Udalak baldintza gisa jarri du, besteak beste, "Aginagako tuneleko obrak hasi arte izango dutela basoa ustiatzeko baimena".

Gipuzkoako Foru Aldundia da Andatzaren jabea eta BasalanArrospide enpresari eman dio zuhaitzak moztu eta ateratzeko baimena. Enpresak, aldi berean, Usurbilgo Uda-

lari baimena eskatu dio basoa ustiatu eta egurra ateratzeko herri bideak erabili ahal izateko.

Urtebeteko epea eman dio Foru Aldundiak Basalan Arrospideri Ustiatketa egingo den lursailak 18 hektarea inguru ditu, eta 4.047 m³ egur ustiatuko dira: Insignis pinua, Lawson altzifrea, haritz amerikarra eta itsas pinua espezieetakoak dira moztuko diren zuhaitzak.

Lan hau osatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtebeteko epea eman badio ere enpresari, "Usurbilgo Udalak Agina-

gako tuneleko obren hasieran ezarri du muga", udaletxetik zehaztu dutenez. Izan ere, udaleko Ingurumen eta Nekazaritza sailaren arabera, bi lan horiek ez dira bateragarriak. Aginagako tuneleko obrak noiz hasiko diren zehazki ezagutzen ez bada ere, udazkenean bertan has daitezke lanak, dagoneko lizitatu baitituzte: horiek hastean eten beharko dituzte baso-lanak.

Lanak iraun bitartean, bide zati bat itxiko da

Zuhaitzak moztu eta atera bitartean, azken urteetan ireki berri den PR-GI-216 bidea zati batean ez da erabilgarri izango: Txangosta eta Ziortzako langa bitartean itxita izango da.

Arburu-Tellendegi landa bidea asfaltatzeko lanak

Udalak Arburu-Tellendegi landa bidea asfaltatuko zuela iragarri zuen aurreko astean. Campezo enpresari esleitu zitzaion egin beharreko obra. Lanen kostua 35.192 eurokoa izango da (BEZ barne), eta horren %55 (19.355,60 euro).

Lanak irailaren 19an hasi zituzten eta trafikoa zuzen bidea.

Aldundiaren laguntzarekin

Gipuzkoako Foru Aldundiak landa bideak konpontzeko emandako dirulaguntza batekin finantzatu da obra.



Ekaineko Jakin Jardunaldiko partaideekin egin zuten estreinakoz oroimenaren ibilaldia herrian barrena.

Oroimenaren bidea, herrian bertan

1936ko gerrak herrian bertan utzitako arrastoa ezagutzeko aukera eskainiko du Usurbil 1936 elkarteak, estreinakoz, urriaren 5erako iragarri duen bisita gidatuan. Erreserbak 650usurbilbizi.eus atarian egin ditzakezue. Hoge bat lagunentzako lekua egongo da.

1936ko gerrak utzitako arrasto gehiago bistartzera doa Usurbil 1936 elkarteak. Usurbilgo oroimen historikoa berreskuratzeko jardunean ari den bilguneak, azken urteotan, besteak beste, Andatza aldean izandako borrokaldien aztarnak erakutsi dizkigu. Horren lekuko dira noiznahi bisita ditzakegun lubakiak edota osa dezakegun oroimenaren ibilbidea. Gerra hark, ordea, Andatza soilik ez, pareko beste mendian, Bordatxon ere eragin zuen, baina baita landa eremuotatik behera joanda, Usurbilgo herri eta auzoetan. Hain zuzen, herriguneko arrastoak dira orain berreskuratu eta ezagutarazi nahi dituztenak.

Horretarako, iraunkorra izango den ekimen bat abiarazi dute; Andatza ere dai-

tekeenaren antzeko oroimenaren ibilbidea sortu eta osatu dute Usurbilgo kaxkoan. Sustatzaileek NOAUA!ri berri eman diotenez, zortzi geltoki izango ditu, zortzi gune. Horiek zeintzuk diren laster jakin ahal izango dugu. Izan ere, totemak kokatuko dituzte eremu horietan guztietan. Haien bidez, usurbil1936.eus atarira heltzeko aukera izango da, xehetasun gehiago jasotzeko. Baina ibilbide hau girotzen hasi asmo dute laster, astebeteko barru hain zuzen.

Bisita gidatua

Estreinakoz, esperietzia pilotu moduan iragan ekainean Artzabalen egindako "gatazkaren memoria, memoriaren gatazka" izeneko Jakin jardunaldiko parte hartzaileekin osatu zuen oroimenaren bidea

Usurbil 1936 elkarteak. Lehenengo bisita gidatu irekia, ordea, urriaren 5erako iragarri dute. Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik, izan ere lehen geldidunea handik oso hurbil kokatua baitago. Hoge bat lagunentzako lekua egongo da lehen bira horretan. Erreserbak, ohi bezala, 650usurbilbizi.eus atarian bideratu beharko dira. Hitzordu honetan parte hartu ezin dutenentzako antolatzaiz-

"GARAI HARTAN IZANDAKO LEKU ETA GERTAEREN XEHETASUNAK EZAGUTU AHALKO DITUZTE"

leen oharra; aurrerago bisita gidatu hau gehiagotan antolatuko dute.

Arrastoa herri osoan

Hainbat azalpen jasotzeko aukera izango da bisita gidatuan. Errelato bat sortu dute horretarako. Ibilbide horretan zehar, Andatza 1936ko gerran izandakoaren berri jasotzeko aukera izango den arren, herriaren garai hartan izandako leku eta gertaera esanguratsuenen xehetasunak ere ezagutu ahalko dituzte parte hartzaileek. "Denak ez dira etxeak", eraikinak, badira baita lekuak. Tartean, badira, geure buruetan irudikatu beharko ditugunak. Izan ere, dagoeneko gaur egun ez daude, ez dira existitzen.

Herri erdigunean egin ahal da oroimenaren ibilbide hau, baina Usurbil 1936 elkarteak ez du ahaztua, Usurbilgo herri eta auzo gehiagotan ere badela gerra garaiaz zer konstatua, izan zirela gertaera esanguratsuenak ere Kalezarren edota Txokoalden esaterako. Momentuz, ordea, ibilbidea bera gune bildu batean egitea beharrezkoa egiten zuenez, herri erdiguneko zortzi puntu lotuko ditu oroimenaren zirku berri honek.

"Betirako hor geratzea"

Herriko oroimen historikoa berreskuratzeko lanean diharduen herriko elkarteak hasiera batean erakusketa bat antolatu asmo zuen, baina azkenean, Udalarekin lankidetzan berau egokitu eta bisita gidatu iraunkor hau sortzea hobetsi dute. Ezkutuan den herri honen historia argitara ateratzen segi nahi dute modu horretan eta "betirako hor geratzea", ikusgarritasun finkoa izatea. Udalarekin batera egitasmo hau ahalbidetu dutenak eskertu nahi ditu aipatu herriko elkarteak; diseinu lanean edo totemak egiten laguntzen aritu diren Intza, Iñaki, Mikel, Kerman, Harkaitz eta udal brigada.



Urrezko bonboia egokitzen bazaizu, hona hemen Hurbilagokoen oharra. "Ez jan bonboia, gorde eta dendan erakutsi zure txekoa jaso ahal izateko".

Ehun euroko bost sari jokoan, Hurbilagoren kanpaina gozoenean

Hurbilago elkartearen dendetan xahutzeko 100 euroko bost bale herritarren eskura jarri dituzte jada. Adi, saltoki horietan erosketak egitearen truke jasoko dugun bonboiari.

Inoizko kanpainarik gozoena aurkeztu du Hurbilago elkarteak. Izan ere, bonboi forma eta zaporea du. Aipatu herriko merkatarien elkarteak abiarazitako ekimeneko kartelean ageri den bonboia dastatzearekin batera, hori gutxi ez, eta 100 euro eskura ditzakegu.

Horretarako, adi begiratu beharko diogu jaki goxo honen itxurari. Izan ere, bonboiaren kolorearen baitan jasoko dugu aipatu saria. Urre kolorekoa bada, ehun euro eskuratuko

dituzu. Horrelako bost bale egongo dira aukeran.

Horretarako, ordea, ezinbestekoa izango da herrian bertan erostea, Hurbilago elkarteak dituen saltokietan. Izan ere hori da helburu nagusia; bonboien amuarekin, usurbildarrek herrian bertan bizitzeaz gain, inora joan gabe bertan erostea.

Urrezko bost bale

Denda hauetako batean erosketak egitearen truke saltzai-

leak bonboi eder bat emango dizu dastatzeko. Bonboia urre kolorekoa bada, Hurbilago elkarteko dendetan xahutzeko 100 euroko erosketa balea jasoko duzu. Aste hasiera honetan, Potxoenean egindako bilkuraren amaieran, kanpaina honen sustatzaileek ateratako talde argazkia duzue albiste honi atxikitakoa. Hurbilagotik bi datu nabarmendu dizkigute; 10.000 bonboi jarriko dituztela herriko dendetan "zirkulazioan". Baina

kopuru itzel horretatik bost baino ez dira izango "urrezkoak". Alegia, bost bonboik ahalbidetuko digute 100 euroko erosketa-balea eskuratzea. Urrezkoa egokitzen bazaizu, hona hemen Hurbilagokoen oharra. "Ez jan bonboia, gorde eta dendan erakutsi zure txekoa jaso ahal izateko".

Partehartzaileak

Urrezko bonboien kanpaina honako hauek parte hartu dute: Aizpurua okindegia, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Ane Ile-Apaindegia, Artzabal Baserria-Jate txea, Arruti Harategia, Bordatxo Taberna, Enar Estetika, Esnaola Janari-Denda, Guria Taberna, Intza Ile-Apaindegia, Iratze Natur Denda, Itzira Eraikuntzak, Laukote, Laurok Liburu-Denda, Lizardi Liburu-Denda, Lurda Mertzzeria, N.I Ile-Apaindegia, Opilgoxo, Otar-Goxo, Txapeldun Jatetxea, Txirristra Taberna eta Usurbil Optika.

Azken urteon ildotik, festa jendetsuak Santuenean

Giro ederra eta parte hartze bikaina izan dute asteburuan ospatu dituzten Santueneko festek.

Azken urteotako joera berretsi da beste behin. Gau eta egun, auzotar nahiz bisitarien mugimendua etengabekoa izan zen asteburuan Santueneko festetan. Iragan ostiraleko txupinazo eta globo gerratik hasi eta igande iluntzeko trakara arte parte hartze ederra sustatu dute jaiok. Agurrera arte, gainera, ia erabat ateri eutsi zion eta auzoko bi plazen nahiz frontoiaren bueltan jendetza batu zen irailaren 20tik 22ra. Denetarik eta denentzat izan da zer egina; txikientzat puzgarriak, apar festa, tailerrak, buruhan-

diak... Helduentzat toka edota mus txapelketak. Gazte mordoak erakarri zituen DJ gauak. Bisitarien nahiz auzotarren bilgune izan dira jaiok. Argi utzi zuen, besteak beste, Santueneko belaunaldi ezberdinak erakarri zituen bazkariak. Belaunaldien arteko topaketa etengabekoa izan da jai hauek hainbat uneetan; elikagai ezberdinen dastaketan esaterako edota adin tarte ezberdinei zuzenduriko ekitaldiek jaietako plaza partekatu izan dutenean. Denen artean, auzoa egiten dihardutenaren seinale.



"Auzoa egin!" lelopean, hainbatek lepoaren bueltan jaietan jantzitako zapia.



Ur jolasetarako giro ederra zegoen ostiral arratsaldean.



Txupinazoarekin batera hasi zen globo-gerra.



Apar festak freskatu zuen uda giroko larunbata.



Burrumbazale txarangak kalejiran hedatu zuen festa giroa auzoan barrena.



Mus txapelketak duen arrakastaren irudia. Lehiakideek frontoia bete zuten.



Jon Alkortak eta Jon Mikel Larrañagak esnatu zuten jaietako azken eguna.



Usurbilgo joaldunak kide berri batekin, Santuenea girotzera abiatu aurretik.



Auzotarren elkargunea izan zen jaietako azken eguneko bazkaria.



Txantxa gutxi izan zen toka txapelketako lehiakideen artean.



Ilara amaigabea, piperrak dastatzeko irrikitan.



Etxebarria aita-emeek dantzalekuan bilakatu zuten Santueneko plaza.



Santuenea K.E.-ren logo lehiaketako lau finalistetako hiru.



Dantzan aritzeko aukera izango da Aginaga partean. Hiru erromeria saio topatu ditugu jai egitarauan.

Datorren asteburuan hasiko dira Aginagako jaiak

Santuenekoen ondotik, badatoz urteko azken festak; San Praixkuak. Urriaren 4tik 12ra, bi astebururen bueltan ospatuko dira aurtengo Aginagako jaiak. Jaiei, gainera, festa egun nagusiarekin ekingo diete; San Praixku egunarekin hain zuzen.

Oilasko biltzaileek biharamunean osatuko dute Aginagako lur eremu zabalean egin ohi duten bira. Urriaren 5ean larunbata, goizeko 6:00etan abiatuko dira Atarialde elkartetik.

Haurren Eguna aldiz, gazteenarekin batera hilaren 11n ospatuko dute eta, biharamunean, iaz estreinakoz ospaturiko Erriorearen Eguna berreskuratu dute.

Trainerilla txapelketa

Aurtengo Erriorearen Eguna berrikuntza nabarmen batekin dator; azken urteotako etenaldiaren ondotik, trainerilla txapelketa iragarri dute urriaren 12rako. Festa

egun handia biziko da, beraz, Orian, piragua, ala eta arraunlarien artean.

Kontzertuak, jan-edana, txapelketak... Denetarik eta denontzat izango da festa urriaren 4tik 12ra Aginagan. Zenbait hitzorduetarako lekua erreserbatzeko aukera duzue jada.

Herri afarirako sarrerak Arraten daude salgai

Bi otorduetarako lekua aurrez erreserbatu beharko dela kontuan izan. Batetik, herri afaria egingo dute urriaren 5ean 21:00etan frontoian. Sarrerak Arraten erosi ahalko dira aldeztatik; 30 eurotan helduen otordukoak

eta haurrenak 12 eurotan. Egunean bertan, 40 eurotan izango dituzte eskuragarri.

Gazte afarikoak, Instagram bidez ekuratu behar dira

Bestetik, gazte afaria iragarri dute baita urriaren 11n Atarialde Elkartean. Izena urria-

"OILASKO BILTZAILEAK URRIAREN 5EAN IRTENGO DIRA, GOIZEAN GOIZ, ATARIALDE ELKARTETIK"

ren 4a baino lehen bideratu beharko da Instagramen.

Kontzertuak, jan-edana, txapelketak... Denetarik eta denontzat izango da festa urriaren 4tik 12ra Aginagan. Honatx jai batzordeak plazazaturiko egitaraua osorik:

Aginagako jaiak 2024

Urriak 4, ostirala:

San Praixku Eguna

- 11:00 Meza nagusia.
- 12:00 Jubilatuen hamaitaketa Aginagako sagardotegian. Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariek girotuko dute ekitaldia.
- 18:30 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin; txanpainarekin gure kontu!
- 19:00 Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilarien saioa plazan.
- 19:30 Sardina eta sagardo banaketa.
- Bitartean, XL. toka txapelketa herrikoia eta buruhandi bizkor-bizkorak.

Urriak 5, larunbata:

Oilasko Biltzaileen Eguna

- 05:30 Oilasko biltzaileen gosaria.
- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera Atarialde Elkartetik.
- 11:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik irten-go dira.
- 18:00 Txosna irekiera.
- 18:30 Kaleak alaituz, Fanfarrikant.
- Bitartean, herri poteoa.
- 21:00 Herri afari bikaina: -Sarrerak Arraten salgai 30 eurotan helduena eta haurrena 12 eurotan. Egunean bertan, 40 eurotan.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Erromeria frontoian: Itzal.
- 03:00 Dj Jotatxo Eliza Zaharrean.

Urriak 6, igandea

- 16:00 XLI. Mus Txapelketa Irekia Eliza Zaharrean

(Parte hartzeko izen-ematea 15:30ean hasi eta 16:00etan amaituko da).

- 18:30 Bingo Musikatua zuzenean gaurko eta lehen-go abestiak entzunez! Nork eramango ote du saria? Eskola Txiki aurrean.
- 19:00 Haragi egosi, txorizo eta sagardo banaketa.

**Urriak 11, ostirala:
Umeen eta Gazteen Eguna**

- 10:00 Umeen jolasen hasiera.
- 13:00 Umeen bazkari goxo-goxoa frontoi txikian.
- 16:00 Puzgarriak ipiniko dira frontoian.
- 17:30 Txokolate goxo-goxoa.
- Ondoren, eguraldiak laguntzen badu, apar festa eta buruhandi gaizto-gaiztoak bustita eta bero-bero haurrak etxera bidaltzeko. Argi ibili!



'Gozatu errioz' ekimenari esker, piraguan, alan edota arraunean ibiltzeko aukera izango da urriaren 12an.

- 19:00 Musikaz girotutako poteoa.
- 21:00 Gazte afaria Atarialde Elkartean. Izena-ematea

- urriaren 4ra arte egongo da zabalik eta Instagram bidez egin beharko da.
- 23:00 Txosna irekiera.

- 23:30 Kontzertua Eliza Zaharrean: Bide Batez erromeria taldea.
- 03:00 Dj Davila.

**Urriak 12, larunbata:
Erriorearen eta Kintoen Eguna**

- 09:30 "Gozatu errioz": Uretako ekintzak: piragua, alan paseoak eta arraunean ibiltzeko aukera izango da, musikaz girotuta eta ha-maiketakoarekin.
- 11:45 Trainerilla txapelketa.
- 19:30 Elektropottotte elektrotxaranga.
- 00:00 Kontzertuak frontoian: Bele eta Herenegun taldeen eskutik.
- 03:30 DJ ZKNBrothers Eliza Zaharrean.
- 08:00 Errefus bilketa.

Antolatzailea:
Aginagako Jai Batzordea.

ETXEKO SAGARDOA



Etxeko sagardoa egiteko ikastaroa eta egurrezko ontzien erabiera sagardogintzan

Etxeko sagardoaren dastaketa gidatua

IRAKASEAK: Jakoba Errekondo eta Egoitz Zapiain

URRIAK 1, ASTEARTEA
USURBIL, Potxoenea
18:00tan DOAN



Alkartasuna Kooperatiba Atallu industrialdea 26, Usurbil 943 361 114 www.alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com



Eneko Eizagirre Huetairen aita suizidioz hil zen 2017an. Gai hau gizarteratze lanean dabil, egun, zubietarra.

"Sufrimendu asko eta laguntza behar handia dago"

ENOKO EIZAGIRRE HUETA

Suizidioz hil zen zubietar gazte honen aita duela zazpi urte. Azken urteotan, gai hau gizarteratzen, ikusgarritasuna ematen, sentsibilizatzeko lanean ari da. Bistan denez, badugu zer ikasi eta zer hobetua, uste baino etxe gehiagotan kolpatzen duen errealitate latz honi buruz.

Eneko Eizagirre Hueta zubietarra dugu lerrootako protagonista. Aita suizidioz hil zitzaion duela zazpi urte, 2017an. Bizitako errealitate latz honen inguruan izan den isiltasuna hausten, sentsibilizatzeko dihardu bere lekukotza emanaz ahal duen guztietan. Asteotan ere dei dezente izan ditu Suizidioa Prebenitzeko Munduko Egunaren harira. Pozgarritzat deritzo hala izatea. Izan ere, gizarte arazo latz honekiko interesa handitzen doala modu argian agerian geratzen ari da.

Irailaren 10eko Suizidioa Prebenitzeko Munduko Egunak esanahi berezia du zuretzat?

Duela gutxira arte ez, egia esan. Duela gutxira arte, ez diot nire aitaren heriotzara arte. Nire aita duela zazpi urte hil zen suizidioz. Suizidioa Prebenitzeko Munduko Eguna noiz zen duela hiru urtera arte ideiarik ez nuen. Egia da, batez ere azkeneko bi urteetan, irailaren 10a nahiko egun lanpetua izaten dela niretzat. Izan ere, hedabide askotatik deitzen didazue gai honi buruz galdezka eta pozgarria da, ze horrek esan nahi du gaiak interesa sortzen duela. Azkenean, hedabideetako kazetariak zatoztenean esan nahi du gizarateak gai honekiko interesa duela eta hori gorai-patzekoa da.

Beste hainbat alorretan aldarrikatzen den moduan, ordea, prebentzioak kasu honetan ere 365 eguneko izan behar du ezta?

Bai. Suizidioa gure gizartean errealitate bat da, ez irailaren 10ean soilik, urte osoan hiltzen da jendea suizidioz. Zifra oso altuak dira.

"ZIFRA HORIEN ATZEAN, SUFRIMENDU ASKO ETA LAGUNTZA BEHAR HANDIA DAGO"

Zifra horiek nola interpretatu behar ditugu?

Hasteko zifra horiek ikusi behar ditugu kontziente izateko zer puntutaraino den errealitate suizidioa gure gizartean. Asko sufritu duten pertsonak daude. Horregatik diot pertsona bat suizidioz hiltzen dela, niretzako ez da guztiz erabaki bat. Zergatik, galdetuko duzue? Ez da erabaki bat niretzako, suizidioz hiltzen den pertsona asko sufritzen ari da eta ez du beste ezer ikusten. Gure kasuan, nire aitari asko gustatzen zitzaion bizitza eta hori badakigu ezagutzen dugunok. Baina garai hartan asko sufritzen ariko zen eta ikusiko zuen bakararra sufrimendua izango zen. Sufrimendu horrekin bukatu nahi zuen. Horregatik ez da guztizko erabakia eta horregatik ez dut esaten suizidatu egin zela baizik eta suizidioz hil zela. Ideia hau hedabideoi beti azpimarratu eta eskatzen dizuet, nire ahotan behintzat modu horretan jasotzea, nire aita suizidioz hil zela. Zifra horien atzean sufrimendu asko-asko eta laguntza behar handia dago, bai bere inguru pertsonalaren hurbilean baina baita profesionalen (psikologoak, erizainak, medikuak...) artean ere.

Galera orok dolua eragiten du. Suizidioz hildako pertsonen osteko dolua nolokoa da? Ezinbestekoa izango da inguru hurbila ikusia, entzuna eta ulertua sentitzea?

Dolua da oso-oso latza. Asko sufritzen da, hasteko, beste heriotza guztietan bezala, maite duzun pertsona bat hiltzen delako. Gainera, heriotza hau ez dago batere konprenitua. Oso-oso garrantzitsua da ulertua, babestua sentitzea eta ingurukoek min hori ulertu ahal izatea. Nire kasuan, adibidez, lehenengo egunetik gure familia hortxe egon zen, haiek galdu zuten osaba bat, anai bat. Azpimarratu nahiko nuke gertuko lagun baina usurbildarren jarrera. Mina

→ partekatua izan zen. Gertutasun eta enpatia hori sentitu genuen. Guk zorte handia izan genuen, dolu prozesu hori asko arindu zigun. Beste kasu askotan, ordea, ez da hala izaten.

Erruduntasun sentimendua presente egoten da dolu prozesu horretan?

Nire kasuan ez da inoiz hala izan. Baina oso ohikoa da kasuotan, zer egin nuen gaizki adieraztea, hau egin izan banu, hona eraman izan bagenu... Argi izan behar da kasuotan ez dagoela errudunik, sufrimendua da errudun bakarra.

Ezinbestekoa izango da hau dena deseraikitzeke isiltasuna haustea. Horretan ari zara. Nolatan hasi zinen hau dena gizarteratzen?

Neure kasuan, dolu prozesu honetan nire hausnarketak egin behar izan ditut eta une batean ulertzera heldu nintzen ni naizela suizidioa lehen pertsonan bizi izan duen pertsona bat. Gaztea naizenez eta errealitate hau hurbiletik bizi izan dudanez, ikusi nuen nire profila egokia zela gizarte esparru batengana iritsi eta suizidioari buruz hitz egiteko; adibidez, nerabeekin. Inork ez du alde honetan egon nahi izaten baina guri tokatu zaigu. Neure lekukotza ematen hasi nintzen Bidegin elkarteak eskatuta, bertako kidea bainaiz. Hitzaldi piloa eskaini izan ditugu eta publiko oso desberdinarekin. Nerabeen esparruan zentratu naiz. Gizarte kolektibo nahiko zaugarria da, suizidioak eragin handia duena. Horrez gain, baita ere egon naiz herri desberdinetan profil desberdinetako pertsonen neure lekukotza helarazten, suizidioari buruz hitz egiten.

Saio hauetan zer gertatzen da norbaitek suizidioaz hitz egiteko hitza hartzen duenean?

Suizidioari buruzko hitzaldi batera datorren pertsona bat da, hein handi batean, errealitate hau gertutik bizitzea



"Azkeneko bi urteetan batez ere, gizartearen interesa oso handia dela ikusten ari gara", adierazi digu Enekok.

egokitu zaiolako edo bera gaizki dagoelako. Horregatik, saio hauetan asko eskertzen dugu jendeak hitza hartzea. Beti esaten dugu adierazitakoa inoiz ez dela epaituko, bertan adierazitakoa ez dela areto horretatik aterako eta erositasun guztiz hitz egin dezaketela. Saio hauetan azaleratzen dena da, besteak beste, zer egin behar den pertsona batek dioenean ez duela bizi nahi, kasu bakoitzean zer egin, berru hustutzeko baliatzen dute baita ere eremu hau edo Osakidetzan izandako bizipenak azaltzeko.

Argi denez, hitz egiteko beharra azaleratzen da.

Ikaragarria da, azkeneko bi urteetan batez ere, gizartearen interesa oso handia dela ikusten ari gara. Gukeskainitako hitzaldietan aretoa betetzen da.

"ARGI IZAN BEHAR DA EZ DAGOELA ERRUDUNIK, SUFRIMENDUA DA ERRUDUN BAKARRA"

Behar honek aldi berean hainbat gabezia daudela agerian uzten du. Zeintzuk aipatuko zenituzke?

Kontuan izanda, gai hau denbora luzez tabua izan dela, suizidioaz hiltzen den pertsonen heriotzak ezkutatu egin izan dira heriotzaren kausa beste bat izan dela esanda. Gure errealitatearen parte denez, protokoloakegon behar dute bai hezkuntzan, larrialdi zerbitzuetako langileen artean, baita hildakoa aurkitzen duten agente guztien artean. Eta bereziki azpimarratu nahi nituzke gaixotasun mentalak. Adibidez, minbizia diagnostikatzen denean prozesua martxan jartzen den moduan ospitalean, pertsona bat emozionalki gaizki dagoenean eta ikusten denean gaizki dagoela baita ere berdintzatzea, gaixo baten moduan. Hau dena eraldatu beharra dagoenaren adibide bat; hitzaldietan adie-

"HITZ EGITEN ETA HEZTEN SEGI BEHAR DUGU, OSO EZJAKINAK BAIKARA GAI HONETAN"

razi izan duten moduan, urgentziatzeko kasu bat Osakidetzara heltzean, psikologoak handik hilabetera ematea hitzordua.

Gizarteratze lan horrek zer ekarpen egin ditu?

Labore sozial on bat egiten ari naizela uste dut, egin beharreko gauza baten moduan. Ondo sentitzen laguntzen dit eta aita presente izaten, bestela ere hala dudaren.

Nola eta zertan hobetu beharko litzateke prebentzioa?

Hitz egiten eta hezten segi behar dugu, oso ezjakinak baikara gai honetan; gaizki dagoena ez epaitzen, eta laguntzen gaizki dagoenari. Erakundeek berdintzatzea eta gainerako eritasunekin egiten den moduan, kasuotan ere prozesuak martxan jartzen. Eskertu nahi dut, AGIFES, Biziraun eta Bidegin elkarteek egiten duten lana. Berez lehenengo pausoa izan beharko luke eta izan behar du Osakidetzara joatea egoera latzetan, baina baita ere jakin, suizidioa prebentzuko telefonoaz gain (024), badaudela beti laguntzeko prest egongo diren elkarteok ere.



"lazko uzta handia izaki, aurtengoa txikia izatea aurreikusi zitekeen eta uzta halakoa izan da".

Sagar uzta iaz baino txikiagoa izango da

"Euskal Sagardorako sagar bilketa hasi da EAEko sagasti batzuetan eta datozen egunetan hasiko da gainerako sagastietan", Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak aditzera eman duenez.

Iazko datuekin alderatuta, heldutasuna atzerago dator sagastietan, "sagar gazietan gehienbat", Euskal Sagardoa markaren sustatzaileek aditzera eman dutenez. "Uzta txikiagoa espero da, ez-urtea tokatzen delako batetik, neguan hotz gutxi egin duelako eta udaran egindako bero zakar kolpe batek uztaren parte bat bota duelako".

Orokorrean, Gipuzkoan Goierri inguruan sagar gehiago batuko da Beterri-Buruntzan baino, neguan hotz handiagoa egin duelako eta horrek eraginda loraldi hobea izan dutelako sagarrondoek.

Iazko uztaren %30 batuko da

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako arduradunen esanetan, "Bizkaian ere antzeko egoera dago, kostaldean baino sagar gehiago da barrualdean eta Araban iaz gutxi eman zuen lekuetan da sagarrik gehien. Guztira iazko uztaren %30 inguru biltzea aurreikusten da".

Uztak orekatzeko proiektuek beren emaitzak emanagatik

ere, "zaila izango da oreka hori Euskal Herri guztira zabaltzea. Beste zenbait faktoreklaguntzen ez badute, uzten arteko aldea handia izango da".

Iazko alkohol graduazio antzekoa

Uzta txikiak direnean azukre gehiagoko sagarrak izan ohi dira, "baina aurten, udarako eurien eraginez, heldutasuna ere atzeratuta dator eta sagastirik gehienetan datorren astean hasiko dira biltzen".

2 milioi kilo inguru

Datu zehatzak emateko goizegi bada ere, 2 milioi kilo biltzea aurreikusten da Euskal Sagardora bideratutako sagastietan. Urtez urte geroz eta sagar gehiago ari da izaten bertako sagastietan, dauden sagastiak zaindu eta sagasti berriak aldatu eta produkzioan sartu ahala. "Bide horretan, sagarziale eta sagardotegien arteko akordioak lotzen ari da Euskal Sagardoa Jatorri Dei-

tura, luzerako elkarlana baita bertako produkzioa handitu, sektoreak indartu, produktuak posizionatu eta kalitatea bermatzeko modurik egokiena".

Sagargileei deia

Datozen urteetarako dei egiten die Euskal Sagardoa Jatorri deiturak sagargileei, sagarra lantzeko interesa badute, aldeztatik sagardogile eta Jatorri Deiturarekin harremanetan jartzeko, akordioak bilatu eta sagarraren kudeaketa denborarekin lotzen joateko.

"EURIEN ERAGINEZ, HELDUTASUNA NAHIKO ATZERA DATOR ETA SAGASTIRIK GEHIENETAN ASTEOTAN HASIKO DIRA SAGARRA BILTZEN"

Sagar eta sagardo kultura

Urriak 1, asteartea

18:00 Potxoenean
Etxeko sagardoa egiteko ikastaroa eta egurrezko ontzien erabilera sagardogintzan. Dastaketa, Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondorekin.

Urriak 17, osteguna

18:30 Aitzagan
"Sagar dultzea egiteko tailerra". Mila Pagola eta Marije Golderazaren eskutik.

Urriak 20, igandea

10:00 Aginagan
"Bertso ibilaldia sagastietan barrena", Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin batera. Jakoba Errekondoren azalpenekin. Aginagako frontoitik abiatuko dira.

Urriak 24, osteguna

18:00 Aginagako Eliza Zaharrean
"Izotz sagardoa zer da?". Ikastaroa eta dastaketa, Egoitz Zapiainen eskutik.

Azaroak 14, osteguna

18:00 Potxoenean
"Sagastien bionaitasuna: sagarrondoek zein bizilagun dituzte?", Iñaki Sanz Azkueren eskutik.

Azaroak 28, osteguna

18:00 Aginagako Eliza Zaharrean
Sagardo Kluba: Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua.

Erakusketa:

Iraila eta urriaren zehar, sagar erakusketa Alkartasunan eta Sutegin.



Emakumeen Etxean, besteak beste, biodantza ikastaroa iragarri dute. Urriaren 1ean hasiko da. ESPAICREATIUVIC.COM

Ikastaroetan izena emateko azken egunak

Urtero bezala, ikasturte hasierako eskaintza oparoa da: zeramika tailerra, aisialdiko hezitzaile titulua lortzeko ikastaroa, biodantza, yoga, taichi edota joskintza tailerrak... Batzuk aipatzearen. Gehienak urrian hasiko badira ere, orain da izena emateko garaia.

'Buztinarekin esperimentatuz' tailerra antolatu du

Buztinzulo zeramika taldeak Buztinzulo taldeak zeramika tailer berri bat antolatu du. "Astelehenetan batuko gara arratsaldeko 17:30etik 19:30era", antolatzaileek adierazten eman dutenez.

Urriaren 7an hasiko da ikastaroa eta maiatzaren 26ra arte luzatuko da. Izen-ematea ordea, urriaren 4an amaituko da. Prezioa: 225 euro.

"Anima zaitetz eta jarri guzurrekin harremanetan helbide honetan, buztinzulo@gmail.com posta elektronikoa".

Aisialdiko hezitzaile ikastaroa Udarregi ikastolan

Aisiola Hezitzaile Eskolak hezitzaile ikastaro bat iragarri du. Azaroaren 8tik maiatzaren 23ra izango da, ostiralero edo

larunbatero, Udarregi ikastolan. Ikastaroa 17 urtetik gorako ikasleei zuzendua dago eta izen-ematea urriaren 25ean amaituko da. Prezioa: 430 euro. Dena den, xehetasun gehiago eskaini asmoz, aurkezpen ekitaldi bat egingo dute urriaren 11n 18:30ean Sutegin. Informazio gehiago: zirimola.eus 943 445 108 aisiola@ikastola.eus

Bi ikastaro Emakumeon Etxean Kalezarko Pelaioenean kokaturiko Emakumeon Etxetik Jabetza Eskolako datozen hilabeteotarako eskaintza plazaratu dute.

Zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa:

Urriaren 3tik abenduaren 19ra (ostegunetan), 17:00-19:00

artean. Eneritz Gallastegik zuzenduriko ikastaroa elebiduna izango da.

Biodantza ikastaroa:

Urriaren 1etik urtarrilaren 28ra (astearteetan), 15:30-17:00 artean. Euskaraz bideratuko ditu saioak Eider Zuriarrainek. Ikastaro hauetan izena emateko aukera izango da irailaren

'SEVILLANAK', DANTZA LATINOAK ETA ARETOKO DANTZAK, GURE PAKEA ELKARTEAK ANTOLATU DUEN IKASTAROAN

16tik 27ra Emakumeon Etxean bertan edo bideotatik: 943 377 112 telefono zenbakian edo emakumeonetxea@usurbil.eus helbidean.

Dantzan aritzeko aukera, Gure Pakea elkarteari esker

Dantza ikastaroa antolatu dute urritik aurrera. Asteartero eta ostegunero izango dira saioak, 16:00-17:00 artean. Herritar orok parte hartu ahaliko du. Antolatzaileek zehaztu dutenez, astearteetan 'sevillanak' ikasteko aukera izango da eta ostegunetan aretoko dantzak eta dantza latinoak. Izen emateko deitu hilabete honetan, 655 731 915 telefono zenbakira.

Taichi ikastaroa, Santueneko Gure Elkartean eskutik

Auzoko Gure Elkartea jubilatuen elkartetik Taichi ikastaroa antolatu dutela berri eman dute. Saioak urriaren 7an hasiko dituzte eta astelehenero izango dira, 17:00-18:00 artean. Izen-emateko deitu telefono zenbakiotako batera: 675 006 445 (Maribi) edo 645 720 692 (Rosarito).

Yoga eta joskintza tailerra Santuenea Kultur Elkartearen

Aipatu auzoko elkartetik adituzera emana zuten, "irailean jarraipena emango zaie aeroyoga eta joskintza tailerrei".

Joskintzari dagokionez, ostiraletan elkartuko dira, 17:00-19:00 artean.

Mari Carmen arituko da irakasle lanetan eta hauxe da bere telefono zenbakia: 695 774 951.

Aurkezpena irailaren 27an eta saioak urriaren 4an hasiko dira.

Oharra: Santuenea Kultur Elkartearen bazkide ez denak ikasturteko 10 euro ordaindu behar ditu ikastaro hauetakoren batean parte hartzeagatik, bazkide lagun moduan. Honek instalakuntzak erabiltzeko eskubidea emango dio eta ez du bestelako betebeharririk izango bazkide lagunak.



Usurbilgo Kulturguneko kideak, asteburuko ekintzen kartela eskuartean dutela.

"Parte hartzeko deia egin nahi dugu. Gure atea beti irekita dago"

KULTURGUNEA TALDEKO ORDEZKARIAK

Ikasturte berriari gogotik ekiteko zenbait ekintza iragarri ditu Kulturgunek astebururako. Kulturzaleei hitzorduotan eta bilgunean parte hartzeko gonbita egin diete.

Zertarako girotu nahi duzue ikasturte hasiera hau?

Kulturgunea itzalean dagoen bilgunea da. Bere helburua ez da ekintzak antolatzea, herriko kultur sustapena mantentzea baizik. Kulturzaleak sortzea da helburua. Talde eragiletik udan atseden hartu dugu. Bilgunea indartu eta jende berria erakartzeko antolatu ditugu asteburuko ekintzak.

Tartean, batzarra. Zer gai jorratu asmo dituzue?

Hasteko iazko balantzea egingo dugu. Orain arte egindakoa labur adierazi eta aurtengo lan-ildoak azalduko dira. Horiei buruz lanean

hasiko gara taldeka, ekarpenak jasotzeko.

Zertan ari da egun Kulturgunea?

Iazko ikasturtean Elkargunea parte hartze prozesua egin zen eta ikasturteko zati handi bat bertan eman genuen. Orain ikusi behar dugu bertan parte hartu dugun talde ezberdinen artean nola sor ditzakegun elkarren arteko sinergiak. Horrez gain, baditugu beste dinamika batzuk ez direnak Elkarguneari lotutakoak. Katalogo bat sortu nahian gabilta, herriko sortzaileek haien lekua izan dezaten. Iaz, galdetegi bat bidali zitzairen sortzaileei. Sortzaileen bat baldin badago katalogoko formularioa

bete ez duena edo ez dakiena egitasmo hau lantzen ari gara, gurekin hartuemanetan jar dadila, helaraziko diogu.

Kultur herri bizia izanik, bolumen handi samarra izango du katalogoak?

Usurbilen kategoria guztietako sortzaileak ditugu; musiki-

"INDARTU ETA JENDE BERRIA ERAKARTZEKO ANTOLATU DITUGU ASTEBURUKO EKINTZAK"

kariak, idazleak, bertsolariak, aktoreak... Herri honetan beti egon da sortzeko gaitasuna eta hori azaleratu behar dela uste dugu. Izan ere, askok presentzia hori dute baina beste askok ez, nahiz egunero lan horretan jardun eta hori azaleratu beharra dago. Garrantzitsua da katalogo hau izatea, herriko antolatzaileek kontratatze orduan jakiteko zer eskaintza dagoen herri honetan eta baita sortzaileen zako ere, beraiek ere leku bat izan dezaten.

Elkargunea aipatu duzue. Zer eman eta jaso du Kulturgunek prozesu horretatik?

Elkarguneak eman du Kulturgunek gainerako taldeekin harremanetarako aukera gehiago eta ikusteko aukera non lortu ahal dituen kulturzaleak. Kulturgunek gazteentzako transmisio eredu izan nahi du eta hor dugu plaza egokia lanean segi eta lan-ildo berri bat martxan jartzeko aukera. Kulturgunea elkarte ezberdinen elkargunea batzeko gunea izateaz gain, beti izango du buruan transmisioa, kultur taldeei laguntza ematea ahal den gauza guztietan... Puntu askotan bat egiten dute Elkarguneak eta Kulturgunek; biek ala biek talde ezberdinen elkarlana batzen dute, horregatik sortzaileak egongo dira Elkargunean. Horrez gain, Elkargunean asko landu da baita espazio fisiko baten beharra eta horren lanketa. Kulturgunean ere hasieratik ikusten zen beharizan bat hori izan da.

Kulturgunek joraturiko bidean, zer beste behar azaleratu dira?

Batez ere, gabezien artean ikusi da, orohar, talde guztietan jende falta dagoela. Ikusi da azken aldian, talde asko sortzen direla. Baina oso zaila dago taldeak aurrera eramateko jendea prest egotea. Herrigintza kontzeptu hori, boluntariotza lan hori galtzen ari da. Jendea erakarri nahi

—> genuke herrigintzara, norberak egiteko gustukoa duen leku horretan.

Sustatu nahi duzuen kulturzale eredua ildo horretan kokatuko duzue baita?

Bai, bakoitza erosoan dagoen lekutik parte hartu dezala. Antolatzerako orduan ere, sinergiak beti bilatu izan ditugu bai antolatzailen artean edo sortzaile desberdinen artean. Adibidez, Kulturgunearen hasierako proiektu bat antolatzailen eta sortzaileen agenda komun bat izatea zen. Horrek ere ekarri du elkar ez zapaltze hori bideratzea eta Usurbilgo herri eta auzoetan egiten dena bistaratzeko. Antolatzailerak askok eskertu dute guk egutegi hori sortzea. Usurbilgo herri eta auzoetan beti dago zerbait baina ahalik eta ondoen egin behar dugu, elkar zapaldu gabe. Horregatik, gure lehen proiektu nagusi hori jada lortu dugu behintzat antolatzailerak gehienek erabiltzea. Bere errendimendu mailarekin oso gustura gaude. Guk badakigu egun berean ekitaldi bat baino gehiago antolatu izanagatik gatazkak egon ahal izan diren egun askotan ez direla egon, aurrez hitz egin eta bideratu direlako egoera horiek bai gure aldetik zuzenean, kultur teknikariaren bidez edo antolatzailerak konturatu eta beharrezko egokitzapenak egin dituztelako.

lazko "Xumetik" herri jaialdiaren bideo proiektzioa eskainiko duzue ostiral gau honetan Sutegin. Nola oroitzen duzue Kulturgunea plazaratzeko baliagarria izan zen Zumetaren muralaren omenaldi hura?

Hasieratik erronka oso handia zen, ahalegin handia eskatu



lazko "Xumetik" herri jaialdia oroitu du Kulturgunek ostiral gauean Sutegin, bideo proiektzio bidez.

zuen, baina merezi izan zuen. Egun horren helburua, Kulturgunek adierazi nahi duen guztia plazaratzea izan zen; herri jaialdia denontzat egitea, bertako eta kanpoko sortzaileekin, modalitate guztiekin, formatu guztietan, auzo eta herrietara zabaltzea. Urtebete pasa den honetan, batez ere jaialdian egon izan zuenarentzat edo une hura berriz gogoratu nahi duenarentzat, proiektzioa emango dugu ostiral gauean Sutegin. Kalitatea handian grabatu zen jaialdia. Xumetik ospatu eta gutxira parte hartu zuten artistei aukera eman zitzaizkien Sutegin ikusteko. Orain, aukera bat eman nahi diegu herritarrei pantaila handian ikusteko. Emanaldian ikusten da parte hartu zutenek Zumetaren muralak guri sentiarazitakoa herriari ematen jarritako gogo guztia. Beraz, pasio berarekin bizi dezala proiektzioa doanek Zumetaren muralak emandakoa.

Zeini zuzendua daude asteburuko ekintzak?

Proiektzioak eta batzarraz gain, bazkaria eta bakarriketen saioa izango dugu aurpegi ezagunekin larunbatean, pika bat aldatzeko. Herri honetan ez dago ohitura handia bakarriketak antolatzeko. Euskal Herrian bai, azken urteotan indartzen joan den formatua da. Gonbidatzen dugu jendea, adin guztientzako moduko ekitaldia izango da. Gainerakoan, zalantzarik bada, Kulturguneari galdetu. Parte hartzeko deia egin nahi dugu. Gure atea beti irekita dago.

"OSO ERRONKA HANDIA IZAN ZEN, AHALEGIN HANDIA ESKATU ZUEN BAINA MEREZI IZAN ZUEN"

Kulturgunearen ikasturte hasiera girotua

Irailak 27, ostirala

22:00 "Xumetik" Eguna gogoratuz bideo proiektzioa Sutegin. **Zehaztasunak:** "Orain urtebete Zumetaren muralaren 50. urteurrena ospatu antolatu zen herri jaialdian berriz murgiltzeko emanaldia".

Irailak 28, larunbata

10:30 Ikasturte hasierako batzarra Potxoenean.

14:00 Kulturzaleen bazkaria Aitzaga elkartearen. Izen-emateko mezu bat helarazi usurbilgokulturgunea@gmail.com helbidera.

18:30 Bakarriketak Sutegi atarian Lauzpabost Standup taldearekin: Esti Curiel, Ander Malbadi, Iker Plazaola, Julen Portillo.

Antolatzailerak: Usurbilgo Kulturgunea.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Aisialdiko hezitzaile ikastaroa Udarregiko ikastolan

Aisiola Hezitzaile Eskolak hezitzaile ikastaro bat eskainiko du Udarregi ikastolan. Ikastaroa 17 urtetik gorako ikasleei zuzendua dago eta izen-ematea urriaren 25ean amaituko da. Dena den, xehe-tasun gehiago eskaini asmoz, Aisiolak aurkezpen bat iragarri du urriaren 11erako. Intere-
sa duenak informazio gehiago jaso ahal izango du egun horretan Sutegin.

Aurkezpen ekitaldia, urriaren 11n Sutegin

- Eguna: urriak 11, ostirala.
- 18:30ean, Sutegiko auditorioan.
- Ikastaro honen nondik norakoen berri emango dute sustatzaileek aurkezpen ekitaldi honetan. 2024-25 ikasturterako antolatu duten ikastarorako matrikulazio epea zabalik da.



Azaroaren 8an hasiko da ikastaroa baina matrikulazioa urriaren 25ean itxiko da.

Ikastaroaren matrikulazioa, urriaren 25era arte

- Izen-ematea: urriaren 25era arte.
- Nori zuzendua: 17 urtetik gorako ikasleentzat.
- Iraupena: Azaroaren 8tik maiatzaren 23ra, ostiralero

edo larunbatero, Udarregi ikastolan.

- Prezioa: 430 euro.

Informazio gehiago:

zirimola.eus
943 445 108
aisiola@ikastola.eus

Iban Zalduren solasaldirako liburuak Sutegin daude eskuragarri

Sutegi udal liburutegiko solasaldiak martxan dira eta ikasturteko lehen gonbidatua Iban Zaldua izango da. Urriaren 23an Sutegin izango da, arratsaldeko 19:00etan. "A Escondidas" plazaratu berri duen liburua hartuko dute hizpide.

Ana Merinoren gidaritzapean

Erdaraz bideratuko du saioa Ana Merino herrikideak. Sutegitik ohartarazi dutenez, "liburuaren zenbait ale eskuragarri ditugu etorri nahi duenarentzat".



Iban Zalduak 'A escondidas' liburuaz jardungo du urriaren 23an.

Uxue Fernandez seigarren izan zen Elgoibarren

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako laugarren final-zortzirena aurreko igandean jokatu zen, Elgoibarren. Eli Pagola Apezetxea nagusitu zen eta Uxue Fernandez seigarren sailkatu zen. Biak ala biak, Hernaniko Ahal-duntze Bertso Eskolan aritzen dira.

Lan puntuagarriak amaituta, Eli Pagola Apezetxea izan zen garaile, 487,5 puntu bilduta. Horrenbestez, final-laurdenetara sailkatu da zuzenean, urriaren 26an Azkoitian jokatu den saiora. Saio berean, Uxue Fernandezek (Urretxuarra jaiotzez baina Usurbilen bizi denak) 430 puntu eskuratu zituen.



Uxue Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetan, Elgoibarren.

Honela geratu zen Elgoibarko final-zortzirena:

- Eli Pagola Apezetxea 487,5.
- Eneko Araiztegi Agirre 454,5.
- Iñaki Apalategi 451,5.
- Unai Izagirre Etxeberria 446.
- Libe Goenaga Arrieta 436.

- Uxue Fernandez Lasa 430.

Bertso-saioa Santuenean

Santuenea Kultur Elkarteak bertso-afaria antolatu du

urriaren 19an, iluntzeko 20:30ean, Ibai-Ondo elkar-tean. Afariko menua honako hau izango da: txistorra, bakailoa saltsan, saiheskia, gazta, irasagarra eta intxaurrak, kafea eta kopa.

Maialen Lujanbio, Unai Muñoa eta Uxue Fernandezekin

Uxue Fernandez eta Unai Muñoa herrikideekin batera, Maialen Lujanbiok abestuko du Santueneko bertso-afarian. Gai-jartzailer lanetan berriz, Onintza Gartzia ariko da.

Txartelak, Gure Elkartean

Bertso-afaritarako txartelak irailaren 30etik aurrera erosi ahalko dira 30 eurotan, Santueneko Gure Elkartea jubilatutako elkarteko tabernan.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta beza-la erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUI:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647742588

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Aginaga sagardotegian txotx garaiari larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduak zaintzen, garbiketarak egiten izan elkarte zein etxe partikularretan, lan bila nabil. Espe-rientzia daukat 631 654 743.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Astean zehar klase partikularrik emateko prest nago, LH zein DBHko ikasleei, astean pare bat ordut. 684070756

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, espe-rientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Helduen zein haurren zaintza lanetarako, edo zerbitzari / garbiketa lanetarako lan bila nabil. 687126811

BESTELAKOAK

Gure Pakea jubilatutako elkarteari inguruan urreko belarritako bat galdu dugu. Aurkitzen baduzue esker-tuko genuke telefono zenbaki honetara deitzea: 666 894 283.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 26	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 27	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 28	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 29	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Astelehena, 30	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astearte, 01	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteazkena, 02	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Osteguna, 03	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 04	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 05	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 06	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak bikote! Uztailaren 27an egin zenituzten 50 urte elkarrekin ezkontuta. Ez ditu edozeinek egiten urrezko ezteiak, zorionak! Familia osoa zuen alboan izango gara ospakizun handi honetan. Besarkada eta muxu handi bana.



Zorionak amona Mertxe! Eta muxu handi bat senide guztien partetik. 92 urte eta beti bezain alai eta baikor! Maite zaitugu.

Pilota partidak

Irailak 26, osteguna
Aginagan, 20:30

Gomazko pala binaka,
Gipuzkoako Txapelketa, 2. maila:

- Pagazpe (Errasti-Salegi)
- Danok Bat

Irailak 27, ostirala
Usurbilen, 18:30

Kadeteak 3. maila, eskuz binaka,
Gipuzkoako Txapelketa:

- Pagazpe (Indakoetxea-Jauregi)
- Arrasate

Eskubaloia Oiardon

Irailak 28, larunbata
16:30 Jubenil neskek

Usurbil KE-Borda Ardoak ZKE

Errebotea

Irailak 29, igandea

11:00 Zubietan

61. Enrike Abril errebote txapelketako asteburuko neurketetako bat Zubietan jokatu da: Zubieta-Luzean

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 27

USURBIL Sareren mobilizazioa

20:00 Mikel Laboa plazan.

USURBIL "Xumetik" Eguna gogoratuz bideo emanaldia

22:00 Sutegin.

LARUNBATA 28

USURBIL Kulturgunearen ikasturte hasiera

10:30 Batzarra Potxoenean.

14:00 Bazkaria Aitzagan.

18:30 Bakarriketak Sutegin.

Ikus 19. orrialdea.

USURBIL Kantu jira

Herritar orok parte har dezake.

12:00 Mikel Laboa plazan.

IGANDEA 29

USURBIL Tenpora taldearen kontzertua

Ama izeneko diskoa aurkeztuko dute Sutegin.

Sarrera: 6 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

19:00 Sutegin.

ASTEARTEA 01

USURBIL Euskal sagardoa egiteko ikastaroa eta egurrezko ontzien erabilera. Dastaketa

Egoitz Zapiain eta Jakoba

Errekondoren eskutik.

18:00 Potxoenean.



Igande honetan, Tenporak 'Ama' izeneko diskoa aurkeztuko du Sutegin.

Tenporaren doinuek girotuko dute igandea

Tolosatik datorren proposamen hau puntako musikariaren elkargune bat da. Talde eta bakarlari ezagun askorekin trebatutakoak. "Pop eta jazz estiloetatik abiatutako musika egiten dugu", aurreko astean eskaini ziguten elkarrizketan azaldu zuten moduan.

Taldea sortu zenetik hona, hauek izan dira Tenporako musikariak: Elene Arandia

abeslaria, Beñat Barandiaran gitarrista, Itsaso Etxebeste baxujolea (Katamalo, Estankona), Hasier Oleaga bateria jotzailea (Ruper Ordorika, Nevermind) eta Juantxo Zerberio pianojolea (Benito Lertxundi, Maddi Oihenart...).

Irailak 29 igandea

• 19:00etan Sutegin.

• Sarrera, 6 euro.

Ikasturteko lehen kantu jira

Udako oporretako etenaldiaren ondoren, martxan da berriz ere Usurbilgo Kantu Taldea. Larunbat honetan, Mikel Laboa plazan elkartuko dira eguerdiko 12:00etan eta bertatik abiatuko dute kalejira modukoa.

'Usurbil, museo irekia'

Irailak 26 osteguna

• 'Zero Zabor' bisita gidatua. 10:00etan Udaletxetik.

Irailak 27 ostirala

• 'Zaintzaren Usurbil' bisita gidatua. 10:00etan Txirikordan.

Irailak 28 larunbata

• 'Usurbilgo sagardo kultura', bisita gidatua. 10:00etan, sagardoaren eskulturatik abiatuta (NOAUaren egoitzaren ondoan).

Irailak 29 igandea

• 11:00-13:15 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita gidatua.

Izen-ematea, informazioa:

650usurbilbizi.eus

Jaiak Aginagan

Urriaren 4an hasiko dira San Praixku jaiak eta urriaren 12ra arte luzatuko dira. Datorren astean plazara-tuko dugu jaien inguruko gehigarria.

Artzi
Patri 2024
latexea

• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata

© 943 362725 • © 688 690 361

txirriStra
TABERNA

• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Antxeta
TABERNA

egunero irekitzen dugu!

• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, raziok..
• paellak enkarguz!

943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZINZIN
DURRUN
KARRATZ

oskar alegriaren film bat



ixiltasuna bidea oroitzapena hontzuria ama behelainoa garia sua mendia lo kanta

**URRIAK 18, OSTIRALA | Sutegiko auditorioan
19:30etan**

Sarrerak: usurbilkultura.eus
6 euro (bazkideek 4 euro, NOAUA!ko egoitzan)

"Ahaztutako bide bat. Etxeko kamera zaharra. Isiltasuna.

Zinemagile batek bere herriko artzainek mendira egiten zuten transhumantziaren bidea berreskuratzea erabakitzen du, baina ez du aurkitzen ibilbide zehatza adierazteko lekuko bizirik. Bere ideia ere bere familiaren super-8 kamera zaharrarekin filmatzea da, baina 41 urte erabili gabe igaro ondoren, ez duela soinurik jasotzen ohartzen da. Ahaztutako bidea eta kamera isila bihurtuko dira, Paolo izeneko astoarekin batera, oroitzapenez, galderaz eta isiltasunez betetako bidaia baten protagonistak".

Oskar Alegriak
zuzendutako fima

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



booktegi jaialdia 2024

URRIAK 26

11:30etan Zumarte Musika Eskolan

Euskarazko literatura sustatzeko jaialdi honetan, **POESIA ITZULERAN** parte hartzeko gonbidapena da honakoa.

Eman izena Sutegi Liburutegian eta bidali zure poema ondorengo helbidera (izena emateko azken eguna urriak 17).

biblioteka@usurbil.eus

Egitaraua ikusgai: <https://www.booktegi.eus/liburuak/booktegi-jaialdia-2024/>

antolatzailea:



laguntzaileak:



OSASUN GIDA

 **MABIOK**
FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografiatan, terapia inbasiboetan eta eskuako terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



C/ Alperroburu kalea, 1. BsB • T. 608 671 925 / 943 372 658
mabiokfisioterapia.com |    mabiok_fisioterapia

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

 **zenta**

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

 Osakidetzarekin hitzarmena

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Irati Ibargoien


FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA



-  Fisioterapia
-  Osteopatia
-  Haurdunaldia
-  Pilates terapeutikoa
-  Psikologia
-  Zoru pelbikoa

943 53 92 66
623 46 26 58

 irati.ibargoien@gmail.com

 Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

 [irati_ibargoien_fisioterapia](https://www.instagram.com/irati_ibargoien_fisioterapia)  www.iratibargoien.com

USURBIL
OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

 **Bizi-Sena**

Neuroenergetika terapiak nervio sistema orekan jartzea laguntzen du, lasaitasuna lortuz gure buirmuñean eta gorpuztean



www.bizisena.es
info@bizisena.es
674 804 913 Santuenea 26 3° Eskubi (Usurbil)

 **Iturraldebotika**

Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO



747 486 835



publizitatea@noaua.eus